

Harria: mundua eta afizioa

Inaxio Perurenak
marka jarri du ▶ 7



Harpidedunei banatua ▶ Larunbata ▶ 2004-06-12 ▶ II. urtea ▶ 350. zenbakia

K. ETXEBERRIA ▶
PRESOAREN AITA

«Ekarriko
dugunaren
esperantza
dugu»

Lander Etxeberriak
gose greban darrai ▶ 4

Europako hauteskundeei begira botoak biltzen

KANPAINA ▶ Ekitaldi gutxi izan da eskualdean eta mitin bakarra, herenegun HZ-k eman zuena

EKITALDIAK ▶ EAko ordezkariak Lanbide Institutuan izan dira eta EAJk orriak banatu ditu kalean ▶ 2

Adin guztietakoentzat bada zeregina jaietan, goizetik gauera

ANOETA ▶ Toka, soinu-joleak, jokuak, magoa eta musika izan ziren atzo; gaur, bakailao lehiaketa, kontzertua eta gazteen eguna ▶ 5

OLAIA ESKITXABEL



Klinikako autobusa. I. TERRADILLOS

TOLOSALDEA ▶

Gero eta jende gehiago doa autobusez klinikara

Erabiltzaileak oso
gustura ageri dira
autobus zerbitzu
berriarekin ▶ 6

TOLOSA ▶

Uztaileko udalekuetan izena emateko epea zabalik da

Laskorainek, Txilipurdikak eta Tolosa CFk antolatzen dituzte urtero ▶ 3



OPEL

Giauto
GIPUZKOA AUTOAK, S.L.

Benta aldea Industrialdea z/g

ANOETA

Tel.: 943 65 00 49

EUROPAKO HAUTESKUNDEAK ▶

Botoak biltzen

EAJko, EAKo eta HZko militanteek Tolosan egin duten kanpaina bildu du HITZAK



Joan den larunbatean aritu ziren EAJkoak orriak banatzen. O. ESKITXABEL



EAKo zerrendaburu Mikel Irujo hilaren 8an izan zen Tolosan. HITZA

IRATXE ETXEBESTE

Biharko Europako Legebiltzararako hauteskundearen harira, ez dira gaur alderdietako militanteak kalean batetik bestera botopaperak banatzen ariko. Hauteskunde Legeak debekatu egiten duelako hauteskunde bezperan kanpaina egitea. Hausnarketa eguna da gaurkoa. Hala ere, joan den astetik hara eta hona ibili dira alderdi politikoetako kideak eta ordezkariak, eta HITZAK Eusko Alderdi Jeltzaleak, Eusko Alkartasunak eta Herriarren Zerrendak azken egunetan Tolosan egindakoak jaso ditu.

Joan den asteko larunbatean jardun zuten EAJkoek Trianguloan alderdiaren eskuorriak banatzen. Karpa modukoa jarri zuten herritarrei kanpainaren berri emateko. Galeusca osatu zuten duten alderdien —EAJ, CIU eta BNG— leloari jarraiki, galiziarrek, euskaldunek eta kataluniarrek Europar «beren izarra» jarriko dutela zioten EAJko hautagaiek, hiru herrial-



HZko hautetsi Peio Galvez, herenegun, Trianguloan. L. MONTES

deek «izaera propioa» dutelako. Ildo beretik adierazi zuten Europako herrialdeen arteko mugek desagertu egin behar dutela, eta, «nola ez, Euskal Herrikoek ere bai». Galeusca estatistik gabeko nazioen «erreferentzia bakarra» izango da, jeltzaleen hitzetan, Europako Legebiltzarrean.

Mikel Irujo, Europar Parlamenturako EAKo zerrendaburuak, Tolosaldea Goi-mailako Lanbide Heziketa Institutua bi-

situatu zuen ekainaren 8an, Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburuarekin, Unai Ziarreta EAKo idazkari orokorrarekin eta Onintza Lasa bozeramailearekin batera. Europar Batasunaren inguruan EAK «ordezkapean oinarritutako hezkuntza eta kultur politiken aldeko aldarrikapena» egiten duela zioen Irujo: «Batik bat kompetentzia osoak ditugun gaitan Ministroyen Kontseiluan ordezkaritza zuzena eskatzen dugu,

beste estatu batzuetan bezala». EAKo hautagaiek esan zuten, «guretzat gutxiengo existentzia da Europar Batasunak ezinbestekoak diren eremuak soilik erregulatzea; estatutik gabeko nazioek hartu behar ditugu erabakiak osoko kompetentziak ditugun gaitan».

Espainiako Auzitegi Gorenen erabakia berretsiz, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak legez kanpo utzi duen Herriarren Zerrendak Europako Legebiltzarreko Hauteskundeetan izango dela berretsi, eta agerraldia egin zuen herenegun arratsaldean Trianguloan. HZko hautetsi Peio Galvezek Euskal Herria Europar badagoela eta, beraz, HZk erakuntza prozesuan parte hartu behar duela zioen mitinean: «Europara goaz gure eskubiak defenditzera eta aldarrikatzera: askatasunaren alde. Konstituzioari ezetz esateko aukera paregabea da». HZko bozkapaperak banatu zituzten ekitaldiaren bukaeran, bozkatzera joateko deia eginez.

TOLOSA ▶

Irazki elkartearen bilera, gaur arratsaldean

Irazki kulturarizdun elkarteak ohiko bilera egingo du gaur 17:00etan Jesusen Alabek ikastetxean. Bestalde, lehengo larunbatean Bizitzaren zuhaitza figuraren zozketa 0021 zenbakari egokitu zaio. 670 211673 telefonora deitu behar da jasotzeko.

ALEGIA ▶

Lasarte-Oriako Alboka abesbatza, gaur

Lasarte-Oriako Alboka abesbatzak kontzertua eskainiko du gaur, 19:45ean, Elizpe aretoan. Hamasei bat kantu eskainiko dituzte lasartearek; euskal folklorea, euskal kanta modernoak eta polifonia uztartuko dituzte. Alegiako Txintxarri abesbatzak eta Albokak aspalditik dute harremana, eta harreman hori dela-medio sortu zen elkartrukea egiteko ideia; Txintxarrikoak maiatzaren 8an aritu ziren kantuan Lasarten.

TOLOSA ▶

Hodeiertz abesbatzaren saioa Tafallan

Hodeiertz abesbatzak kontzertua eskainiko du gaur Tafallako Andra Mari elizan, 21:00etan. *Antso Handia Errazu* obra interpretatuko du, Antso III.a Nafarroako Errege koroatu zutela mila urte bete direlako. Kantata hori organoz laguntzen da.

aranburu jauregia
T o l o s a

Faustino Aranzabal
Pintura

maiatzaren 14tik uztailaren 3ra

Angel Cuervo
Argazkiak - Mundu bete kolore

maiatzaren 7tik ekainaren 12ra

Ordutegia: jaiegunetan eta astelehenetan izan ezik, 17.30 - 20.30
Sta. Maria plaza, 4. Tel.: (943) 67 48 11. Fax: (943) 67 26 22

Herri Irratia
RADIO POPULAR

Herri Irratia-ak premia handiarekin behar du:

MERKATAL AGENTEA

Gipuzkoa eremurako. Berezko ibilgailua eskatzen da. Bezeroen kartera eta adostu beharreko baldintzak eskaintzen dira. Interesa dutenak bidali curriculum vitae-a.

Herri Irratia, Garibai 19, 20004 DONOSTIA helbidera, info@herri-irratia.com helbidera edo deitu 943 423 644 edo 943 43 02 24 telefono zenbakira.

HITZA, eskualdeko plaza
661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

Beti gure herriko kultura laguntzen.....

Tolosa Gasak ehun bezero gonbidatu nahi ditu **Ainhua Artetaren emanaldira**. Gure bezeroen artean zozketa egin dugu eta laister jasoko dituzue etxean erabat dohainik bi sarrera. Adi egon, ekainaren 16an, gaueko 20:00etan hitzordua baitaukagu Leidor aretoan.



Tolosa Gasa.....naturala da.

Bezero Arreta Bulegoa • Arostegieta, 18 behea • Tel.: 943 67 35 20

VILLABONA ▶ GIZARTEA

Estradizio arriskua dela-eta gose greban jarraitzen du Lander Etxeberriak

Prentsaurreakoa eskaini zuen atzo Etxerat-ek; billabonatarrek sinadura bilketa masiboa egingo dute egunotan eta hilaren 18an manifestazioa izango da



Etxerat-eko ordezkaria eta Etxeberriaren gurasoak. G. AZKUE

GARAZI AZKUE

Lander Etxeberria San Sebastian, Villabonako presoaren inguruan hitz egin zuten atzo Etxerat-eko ordezkariak. Mahaiaren bueltan, Etxerat-eko ordezkaria eta Etxeberriaren gurasoak bildu ziren; inguruan zituzten bailarako Etxerat-eko gainerako kideak.

Ekainaren 29an betekoduz gorrak Etxeberriak, gartzetako batzordeak maiatzaren hala erabakita. Etxerat-en esanetan, «agintari frantsesek espainiar poliziaren eskuetan jarriko dutenaren beldur gara». Bere aurkako estradizio eskaririk ez badago ere, egoera berok aurrekariak badirela ai-

patu du presoaren eskubideen aldeko taldeak.

Bere egoera salatu nahian, Lander Etxeberriak gose greba mugagabea hasi zuen maiatzaren 31an, 13 egun daramatza, beraz, billabonatarrek baraualdian.

Honen egoeraren aurrean, «espainiar estatuan torturatu egiten dela ezkutatzea, eta al-diz, Iraken bertakoek torturak jasan dituztela ikustean aztoratzen diren horiek hipokresiaz jokatzaren dutela salatu beharrean gaude».

Etxeberria 2001ean atxilotu zuten eta 2002an epaitu ondoren, lau urteko gartzela zigorra eta Estatu frantsesean bizitzeko debekua jarri zion Pariseko

epaitegiak. Franzia kartzela ugari pasa ondoren, egun, Draguignan-eko espetxean dago preso billabonatarra. Espetxean zegoela gaixotasun larria diagnostikatu zioten; gaitzaren ondorioz, 20 kilo galdu zituen Etxeberriak.

Lander Etxeberriaren egoeraren alde lanean ari da jendea Villabonan, «Frantziako estamentu desberdinei sinadurak bidaliko dizkiegu, eskaera hau egingez. Asteartea 15 bitarte sinadura bilketa masiboa martxan dago. Herritar oro sinadura emateara gonbidatu nahi dugu». Atxikimenduak landerretxera@euskalerrria.org helbidera bidali daitezke.

Bestalde, herenegun, Gobernu Batzordean, Etxerat-ek aurkeztutako mozioa onartu zuen Villabonako Udalak. Bertan, Lander Etxeberriaren askatasuna eskatzen dute, eta Udalak eta alkateak, «ahal diren gestio guztiak» egingo dituztela gaineratzen dute. Udalak, bestalde, Etxeberriaren inguruan egiten diren deialdiekin bat egingo du.

Billabonatarren askatasuna eskatzeko, manifestazio deialdia egin dute datorren ostiralerako. 19:00etan bilduko dira Villabonako plazan.

KLAUDIO ETXEBERRIA ETA ANAMARI SAN SEBASTIAN ▶ LANDER ETXEBERRIAREN GURASOAK

«Askatu eta gurekin ekarriko dugunaren esperantza dugu»

Lander Etxeberriak 20 egun daramatza gose greban. Hirzak bere gurasoekin hitz egin du haren egoeraren inguruan.

Nola dago Lander une hauetan?

Bera ongi dago, baita animoz

ere. Derrigorrez hartu beharreko tratamendua du. Egoera honetan, ordea, tratamendua hartzea ez da derrigorrezkoa eta berak nahiago du ez hartu. Okerrago jartzen bada hasiko da berriro.

Zer gertatuko dela uste duzue 29an?

Pentsatu nahi dugu etxera ekarriko dugula. Logikaz askatu egin behar dute, Espainiako Gobernuak ez du inolako estraditazio eskaerarik



G. AZKUE

egin, eta ez da inongo sumariotan azaltzen. Beraz, han bete badu bere zigorra askatzea da logikoa. Ez dago, ordea, hori gertatuko den bermerik. Askatu eta gurekin ekarriko dugunaren esperantza dugu, ordea.

Nolako osasun-laguntza du gartzelan?

Gose greban dagoen bitartean egunero analisiak egiten dizkiote eta tentsioa hartzen diote. Baina epaitu aurrean oso egoera txarrean egon zen. Begiratzeko eskatuta, hiru edo lau hilabete pasatzen ziren medikua pasa aurretik. Gaixotasuna zuela jakin zutenean, ordea, klinika on batera eramane zuten eta esperientzia handiko mediku batek tratatu zuen. ◀

psikomotrizitatea
psikologia
• Psikomotrizitate atzerapena
• Portaeraren aldaketa
• Blokeo emozionala
• Arreta zailtasunak
• Hiperaktibitatea eta inhibizioa
P. Gorosabel, 40-18
TOLOSA • 943 69 82 65
mug.: 626 176 522

Gasa - Berokuntza - Iturgintza
Martin
iturgintza
Herriko plaza, 7-Atzekaldea • ANOETA • Tel.: 943 65 38 88/ 943 65 14 62

KUKU
Elkartea
Ondo pasa herritarrok!

JUANJO
Herriko plaza, 2 • ANOETA
Tel.: 943 651 194

Jaiak ondo pasa!
Herriko plaza, 9 • ANOETA • Tel.: 943 65 16 80

Iraola
Garbigaiak, lurrinak, guztiontzako arropak, bitxiak, osagarriak
BADAUKAZU ZER AUKERATU
Herriko plaza, 5 • ANOETA
Tel.: 943 65 36 76

Maite janaridenda
Jaiak ondo pasa!
San Juan kalea, 8 • ANOETA
Tel.: 943 65 20 37

Iturralde JANARIDENDA
Igandetan eta jai egunetan goizez irekita
Hozpel kalea, 1 • Anoeta
943 65 01 65
Oria kalea, 8 • Tolosa
943 65 17 81

ANOETA ▶ JAIK

Denentzako zeregina goizetik gauera

Txan magoaren emanaldia Gaztetxean izan zen euria zela-eta



Olatuak eginez txalupa gainean gustura ibili ziren gazteboak. HITZA



Txan magoa, Gaztetxean eskainitako ikuskizunean. O.ESKIXABEL

OLAIA ESKIXABEL

Jubilatuen toka txapelketarekin hasi zen atzoko eguna; emakumeak zein gizonezkoak txapa hotsa ateratzeko saiakeran aritu ziren. Punteria hobe-

rena izan zutenentzat sariak banatu zituzten amaitzeko. Ondoren, Loatzo musika eskolako soinu-joleak herriko kaleak zeharkatu zituzten bere musika jarritz. Arratsaldean, denetarikoa

EGITARAUAK ▶

JAI OFIZIALEK

11:00. Buruhandien eta erraldien kalejira, herriko txistulariekin.
12:00. Txalapartaldi libre.
15:30. Mus txapelketa.
17:30. Txokolate jatea.
18:00. Denbora antzerki taldearen Gaixotzea ez da txantxa! pailazoak frontoian.
19:00. Tolosaldeko Bakailoa saltza berdean VI. Lehiaketa.
20:30. Herri afaria.
23:30. Moted, Dikers eta Eraso taldeen kontzertuak.

JAI ALTERNATIBOAK (GAZTEEN EGUNA)

14:30. Gazteen bazkaria.
18:00. Gazteen kalejira.
21:00. Herri afaria.
23:30. Gazteen dantza emanaldia.
24:00. Nekin musika taldea.

aukera izan zuten haurrek. Plazan, Kulki joku tradizionalan jolastu ondoren, Gaztetxera gerturatu ziren gehienak euria zela-eta bertan eskaini baitzuten Txan magoak ikuskizuna. Haurren algarak ezezik gurasoenak ere entzun ziren saioan zehar. Gauean, kontzertuen txanda izan zen; jai alternatiboetako zein ofizialeko egitarauetan musika emanaldi ugari antolatu ziren.

ORENDAIN ▶

Udalak antolatuta egun pasa, gaur

Biarritzera joango dira herritarrek; udal langile batek gidatuta bisitatuko dute herria

O.ESKIXABEL

Orendaingo Udalak, ohiturari jarraituz, urteroko bidaia antolatu du gaurko; Biarritz bisitatzeko gonbitea luzatu zaie herritar guztiei.
09:00etan Orendaindik abitu eta Arrangoitzen norberak

eramandako hamaiketako egin ondoren, Biarritzera bidea hartuko dute.

14:45ak aldera, Ilbarritz jaietxean bazkaldu ondoren, Biarritz bisitatuko dute bertako udal langile batek gidatuta. Etxerako buelta 20:00ak aldera izango dela azaldu dute.



Berrir bilduko dira, bihar

ALEGIA ▶ Pasa den igandean, *Franconi Haur Eskola* irailera ekimenaren aldeko kontzentrazioa burutu zen; bertan, 100 pertsona inguru bildu ziren. Bihar, igandea, plazan berrir biltzeko deialdia luzatu dute Haur Eskola martxan jartzeko interesa dute gurasoek; kontzentrazioa 11:00etan izango da. Herriarren sinadurak jasotzeko mahaia ere jarriko da bertan: «Herriarrak Haur Eskola martxan jartzearen aldeko sinadura ematera gonbidatu nahi ditugu», azaldu dute gurasoek. HITZA

AKROSFIDE SL
MAKINARIAREN MEKANIZATUA
ETA KONPONKETA OROKORREAN
Benta-Aldea, 6.pab - 7 behe - ANOETA
Tel. eta Faxa: 943 65 17 44

Anoeta
automatikoak, cb
Jolaserako makinak
Tel.: 943 65 21 64 • ANOETA

CC SA CALCOSA
Errota industr.2
3.pabilioia • ANOETA
Tel.: 943 65 24 40
Faxa: 943 65 44 73
GALDARAGINTZA ETA ERAIKUNTZAK

ANOETA
KARROZERIAK
TXAPA ETA PINTURA
INFRAGORRI BIDEZ LEHORTUA
Benta Aldea Industriaidea
ANOETA
Tel.: 943 651 308 • Faxa: 943 652 506

GIZARTEA ▶

Klinikara autobusez

Gero eta jende gehiagok erabiltzen du herriko autobusa;
jendea oso gustura dago zerbitzu berriarekin

IÑIGO TERRADILLOS

Urte hasieran martxan jarri zen Tolosan herrian zehar ibiltzen diren autobusen zerbitzua *Tolosan autobusean* lelopean. Horrela, bi ibilaldi egiten dituzten bi autobusek eramaten dituzte herri-tarrak alde batetik bestera. Lehenegoa Laskorain ikastolatik, Berazubi auzotik edo Larra-mendi auzotik igarotzen da, besteak beste; eta bigarrenak, berriz, Amarozetik erdigunera joateko aukera eskaintzen du.

Duela hilabete, gainera, lehenengo ibilbidea egiten duen autobusak bere zerbitzua zabaldu egin du; Tolosako Udalak, Asuncion klinikako zuzendaritza eta Tolosaldea Garatzenekin izandako elkarriketen ondorioz, autobus zerbitzuaren ibilbidea luzatzea erabaki zuen, Asuncion klinikara ere igotzen delarik orain. Horrela, apirilaren 26an abian jarri zenetik, du Tolosaldeko biztanle-goa zerbitzu hau erabiltzeko aukera. Autobusa, astelehene-tik ostiralera, goiz eta arratsaldez, eta larunbata goizetan, orduerdiro igotzen da klinikara.

Egunetik egunera gero eta jende gehiagok erabiltzen du zerbitzu berria; «hasieran, jendeak zerbitzu honen berri ez zuelako edo, gutxi ziren autobusera igotzen zirenak. Gaur egun, ordea, 120 pertsona inguru igotzen dira egunero», dio Iñaki Gastesi autobus gidariak.

Autobus hau hartzen duten askok familiarterako batek igo ezin bazuen taxiz igo behar izaten zuen lehen; orain, berriz, egunero eta orduerdiro dute autobus hau beren eskura.

Kanpotik etortzen diren askok erabiltzen dutela dio Gastesik, autobusez etortzen badira Santa Klarako geltokitik oso gertu geratzen baitaie eta batetik jaitsi eta bestea hartzen



Klinikara igotzen den herriko autobusarekin jendea «oso pozik» dago. IÑIGO TERRADILLOS

ORDUTEGIA ETA HAINBAT DATU ▶

ORDUTEGIA, SANTA KLARAN

▶ Astegunetan.

Goizez. 07:45, 08:15, 08:45, 09:15, 09:45, 10:15, 10:45, 11:15, 11:45, 12:15, 12:45, 13:15.

Arratsaldez. 16:45, 17:15, 17:45, 18:15, 18:45, 19:15, 19:45, 20:15, 20:45.

dute Asuncion klinikara igotzeko.

«Igotzen diren guztiek zerbitzu berri honekin oso gustura daudela diote eta beharrezkoa zela iruditzen zaie», dio autobus gidariak.

Bestalde, joan den astean, herrian zehar ibiltzen diren autobus hauen balorazioa egin dute Udaleko Ingurumen saile-

▶ Larunbatetan.

Goizez. 08:45, 09:15, 09:45, 10:15, 10:45, 11:15, 11:45, 12:15, 12:45, 13:15, 13:45.

ZENBAIT DATU

Erabilera. 13.405 pertsona.

Diru sarrera. 11.694 euro.

Adin txikikoak. %37, 11 urtez beherakoak.

ko Joselu Andueza zinegotziak eta Antton Lekuona Ingurumen teknikariak, martxan hasi zirenetik bost hilabete igaro direnean.

Balorazioan, baikor

Emaita eta ondorio onak lortu direla azpimarratu dute. Autobus hauek jartzearen helburu

nagusia jendeak herrian zehar ibiltzeko autoa ez hartzea zen, autobusak herriko mutur batetik bestera joateko aukera ematen baitu, eta honek herriko trafikoa arintzea baitakar.

Erabiltzaileen kopuruari buruz, bestetik, abian jarri zenetik handituz joan dela nabarmendu dute udal ordezkariak; urtarilean 9.000 herritar inguru hasi ziren autobus hauek erabiltzen; eta maiatzean, berriz, 13.500 izan dira, eguneko 540 igotzen direlarik autobusera.

Lehenengo ibilbidea egiten duen autobusean adin txikiko erabilera azpimarratu behar da, bereziki, Laskorain ikastetxetik igarotzen denez asko izaten baitira ikastetxera autobusez joaten diren haur eta gazteak.

Gaztetxoenen kasuan, orain arte 11 urtez beherakoek doan

ZER IRUDITZEN ZAIZU ZERBITZU BERRIA? ▶

ASUNCION ERAUSKIN

IBARRA



«Gustura nago zerbitzu berri honekin. Izan ere, klinikara igotzeko orain arte txia erabili behar izaten nuen».

PEPI ZABALETA

TOLOSA



«Lehenengo egunetik hasi nintzen erabiltzen autobusa hau. Zerbitzu berri honen berri harra bazegoela iruditzen zaiz».

PEDRO BARAJAS

IBARRA



«Kontsultak, errehabilitazioak edo bisitak egitera doazentzat, adibidez, irtenbide egokia da».

DAVID MENDEZ

ANDOAIN



«Orain bajaran nago eta ezin dut autoa gidatu; horregatik igotzen naiz autobusez klinikara. Niri oso ondo datorkit jarri duten zerbitzu berri hau».

erabiltzeko aukera dutela ere aipatu behar da, baina deskontu berezi honetarako urte kopurua jaistea ari dira pentsatzen.

Gainera, autobus honek gorakada nabarmena izan du Asuncion klinikara igotzen hasi zenetik, egunero 120 herritarren kopurura ere iristen delarik.

Gaur egun egunean 0,50 euroko kostua du autobus honek eta aurrera begira abonua ere eskuratu ahal izango dira egunero erabiltzen dutentzat.

iragarki laburrak ▶

Lorezainak, garbitzaileak, beharginak, zerbitzu anitzak, sukaldari laguntzaileak, Eusko Jaurilaritza eta udal-erako. Hurrengo inkomporazioak: Donostia, Bergara, Hernani. Doako informazioa. 943 444182.

Igeltseroak, iturginak, arotzak, beharginak. Plaza finkoak udal eta Eusko Jaurilaritza. Doako

informazioa. 943 444182.

Ezinduak. Erreserbatutako plaza finkoak. Lortu zure lanpostua udal eta Eusko Jaurilaritza; garbitzaileak, gidariak, zaintzaileak, zerbitzariak. Doako informazioa. 943 444182.

Ezinduak. Lanpostu finkoak erresidentzia, ospital, ikastetxe eta egoitza publikoetan. Doako informazioa. 943 444182.

Harreragile-telefonista. Plaza libreak Eusko Jaurilaritza eta udal-erako. Inkomporazioak laister. Doako informazioa. 943 444182.

Yate untzien gidaria. Lortu titulua eta gozatu itsasoaz. Doako informazioa. 943 444182.

Zaintzaileak. Haurrak eta agureak zaintzeko plaza finkoak udal eta Eusko Jaurilaritza. Doako

informazioa. 943 444182.

Liburutegiko zaintzaileak, udal arribategi eta unibertsitatean lan egiteko. Berehalako inkomporazioak. Doako informazioa. 943 444182.

Banketxe eta kutxak. Laguntzaileak behar dituzte. Ezinbestekoa: DBB. Inkomporazioak laister. Doako informazioa. 943 444182. **Gizarte langilea.** Laster

inkorporazioak udal-erako, Foru Aldundian. Doako informazioa. 943 444182.

Osasunbidea. Administrazioak, erizain laguntzaileak eta OLTrako 189 plaza. Doako informazioa. 943 444182.

Laborategiko teknikoa eta laguntzaileak, ingurugirokoa. Plaza libreak Erakunde Ofizialetan. Doako informazioa. 943 444182.

INAXIO PERURENA ▶ HARRIJASOTZAILEA

«Harriaren mundua nire afizioa da eta gozatu egiten dut»

Duela gutxi 210 kiloko harri zilindrikoa jaso du bizkar gainera esku bakarrez, hogeitaz urte besterik ez dituen arren

JAIONE ASTIBIA

Inaxio Perurena leitzarrek ekainaren 6an egin zuen marka, Urrestillan.

Lehenengo igandean 210ekoa-ekin beste marka bat ezarri duzu. Esan zutenez erraz. Hala da?

Ez. Ez hain erraz, 19 segundo behar izan nituen hori goratzeko. Ahalegin berezia egin behar izan nuen horretarako, prestaketetan-eta jasota etorri arren.

Azken saioa izan da markai dagokienaz, aurtengoz?

Bai. Udan beroagatik eta, soineko arropak busti-busti egiten dira barrendik ere eta irristatu egiten da markak egiteko garaian. Orain jada udako saioei ekin behar diegu.

Udan herri-herri ibiltzen zarete. Zenbatsutara?

Ez dakit. Askotara. Orain hasi eta abuztuan, herriko festa inguruan izaten ditugu saio gehien. Hortik aurrera gutxi-ago. Aitak eramaten du kontu hori, beti elkarrekin ibiltzen gara eta bera arduratzen da horretaz.

Eta noski, festaz festa ibiltzen zarete. Nola daramazu hori?

Lehen ez nien hainbeste gogo. Lasai ederrean afaldu, bertso batzuk entzun eta etxera joateko arazorik ez nuen. Baina orain horretan ere ikasten ari naiz eta...

TEKNIKA

«Mugimendu guztiak oso ongi neurtuta eman behar dira eta hori ikasi egiten behar da»



JAIONE ASTIBIA

Baina gero antidopingarekin zer?

Bada, lasai. Negu partean eta, markengatik eta, zintzo ibili behar dago. 14 urtez geroztik, proba guztietan egiten dizkidan frogak. Eta bestelako saioak ditugunean ere zaindu beharra daukagu. Ez naiz edanzalea, lagun arteko girozalea baizik.

Kontuak kontu ez zarete nazaratzen, hara-honerako ibil-lan?

Fisikoki bai, egun berean hiru herri desberdinetan ere saioak izan izan ditugu eta. Baina jarri egiten da horretara.

Zer duzu nahiago herri-herri-ko saioekin aritzea edo markak prestatu eta...

Ez, ez, saioak dudarik gabe. Harria jaso, bertako giroa bizitu eta gustura ibiltzen naiz. Markekin eta buruhauste galantak izaten dira. Beste tentsio bat da eta ez da hain gustukoa. Marka guztiak hautsiz, iada

pisu handietara iritsi zara. Ez dizu erreparorik ematen edo?

Ez naiz besteen markak hausteagatik ari. Nik indarra dudana heinean, niri dagokidan erritmoan noa, denak probatuz. Nahikoa altua naiz eta, bolarekin eta kubikoarekin gehiago kostako zait, baina horretan ere saiatuko naiz. Aita denekin saiatu izan da eta ni ere bere eskolako naiz.

Hori da, indarrarekin bakar-ra aski da edo besterik ere bai.

Ez, indarra behar da baina ez da nahikoa. Nahitaezkoa da teknikak ikastea, batez ere esku bakarrarekin aritzeko. Mugimendu guztiak oso neurtuta eman behar dira eta hori ikasi beharrekoa da. Beti ikasten ari gara.

Zure lanbidea da jada edo ez?

Ni lanbidez abeltzaina naiz. Gorritenean gure baserrian. Harriaren mundu hau nire afizioa da eta horrekin gozatu egiten dut: herrietako jendea-

MOTZEAN ▶

Gustuko jaki bat? Txuleta.
Eta ez hainbeste? Arrainari alergiat diot.

Zaletasuna? Motorrak.

Gustuko musikarik? Euskadi Gaztean jartzen dutena.

Txoko bat? Etxeko sofa!

Festa egun bat? Inauteriak.

rekin hitz eginez eta, jasoaldi mota bakoitzaren historia kontatuz eta, gustura gabilta.

Hain polita al da dena?

Une gogorak ere izan dira, mina hartzen duzunean esaterako: harria gerrian itzultzera-koan irristatuz-irristatuz aldakako hezuraren aurka joaten denean eta dena ubelduta daukazunean. Harriari beldur-errez ekiten zaio orduan. Baina neurria hartuz zoazen heinean, ikasiz, hori dena ahaztu eta berri-errez ere jostatzen hasten gara.

Ametz bat.

Lesiorik gabe, harriak jasoz, gozatuz ibiltzea. Aitak 47 urte ditu eta belaunak txikituta izanda ere, gozatuz dabil. Nik ere horrelaxe ibili nahi dut, gustura!

Zerbait erantsi nahi duzu?

Bai. Harria munduko bazter guztietan landu eta erabili izan da: harrespiletatik hasi, Greziako olinpiadetan barrena, gaur arte. Baina euskaldunak izan gara kirol modura modernizatu dugunak, eta hori harrotasunez esan dezakegun zerbait da. Bada, orain, ez dezagun galtzen utzi. Zaila da, baina gure nortasunaren zati da eta eutsi egin behar zaio.

10 bidaia zozketan

K a r i b e
T u n i s i a
I t s a s b i d a i a
D u b l i n
F i t e r o

Ekainaren 12tik aurrera



Laguntzailea:



Euskaldunok behar dugun

berria

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko ekainaren 12a, larunbata ▶ II. urtea

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

20

hotzena

15

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzoketa, Aduna, Albizur, Alegia, Aliza, Alzo, Ametzeta, Anetza, Balañan, Berastegi, Erduin, Hernialde, Iruia, Iruia, Lami, Leizor, Lizartza, Orendain, Orendain, Tolosa, Vilabona, Zuzuri

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jauriluzia
Kultura Saila



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Areso. Haur jokoak 17:30ean, ondoren merienda eta 19:30ean ipuin kontalaria udaltxean.

Gaztelu. Ongietorria Jon Goikoetxea *Bol-ri* Everestara igo delako 20:30ean udaltxean eta 21:00etan afaria Muxarra elkartean.

Leitza. Kirol Eguna. 11:00-etatik aurrera, kiroldegian.

Tolosa. Hirukideren amaierako festa Eskolapietean egun osoan

Tolosa. III. Pako Eguna: 10:30ean basket hiruak; 11:00etan rodomoia; 12:00etan esgrima; 14:00etan bazkaria; 16:00etan patinekin itzulua Arramele zubitik abiatuta; 17:30ean Rondilla kalean zehar, hockey patinen gainean eta

skate park-a; 18:30ean *graffiti*-ak eta mural margoketa.

Tolosa. Betizu Show. Talde berria. 19:00etan, Leidorren.

Tolosa. Txobxongoak eta pailazoak 18:30ean Triangulon.

Tolosa. *El día de mañana* filma. 22:30ean Leidorren.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Tolosa. Olarreaga A. Korreo 2 (Tolosa) 670128.

Leitza. Plaza. Elbarren 36.112

HITZA TXAPELKETA

Alebinak (finalerdiak).

Aizpuru-Aizpuru/ San Sebastian-Castro. Urretabizkaia-Karasatorre/ Gorostidi-Gailurralde (Alegia, 16:00).

Infantilak (finalerdiak).

Olaetxea-Sagastibelza/ Guerra-Otamendi.

Iraola-Iraola/ Gaztañaga-Aizpuru (Aduna, 16:00)

Etorkizunekoak (finalerdiak). Renobales-Txertudi/ Etxebeste-Elizalde.

Zubieta-Retegi/ Apezetxea-X.Arrastoa (Beotibar, 12:00)

TOLOSA KUP

13:00. Wasper-Itaie.

13:45. Lekukik-Maradonas.

14:30. Hawai-Santos hara.

15:15. Izarpe-Plaza Nueva.

16:00. Egoki-Ordago.

16:45. Itzuli-Inaki Falkon.

17:30. Maskor-Txanpa.

18:15. Ikatz-The Patxis.

19:00. Neskak-Ekaiz.

19:45. Tras. Escol-Ttamtogor.

20:30. Ieltxu-Elorri.

21:15. Kupela-Romero.

POXPOLAN ▶ TXINDOKI JATETXEA

Azpizuna foie fresko, barazki egosi eta sagar saltsarekin

OSAGIAK (BI PERTSONENTZAKO)

Azpizuna, brokolia (lau pusketa), azenarioa (bat), pikiloko piparra (bi), foie freskoa, gatza eta piper beltz hautsa.

Sagar saltsara egiteko. Sagar bat, bi goilarakada azukre, gurina (50 gr.) eta modenako ozpin txorrotada bat.



PRESTAKETA

Sagar saltsa. Sagarra zuritu eta xerratu, gurinarekin zartagian jarri eta ondo gorritutakoan azukrea bota. Sutan utzi karamelo pixka bat egin arte. Ondoren, ozpin txorrotada bota eta erduzitzen utzi. Ondoren, turmixean pasa.

Barazkiak. Brokolia eta azenarioa (xerratan) aparte baporen egosi. Pikiloko piparra bere horretan bota platerara.

Gainontzeko osagaiak. Azpizuna plantxan egin; ondoren foie ere buelta eta buelta egin plantxan (honi piper beltz hautsa bota gainetik). Ondoren platera montatzea besterik ez da geratzen.

ZORION AGURRAK ▶



ZORIONAK

Luis Urruzola eta Evarista Urkula.

Bihar urrezko etzeiak.

Zorionak eta egun ona pasa familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Unai Iribar (Ibarra).

Gaur 5 urte. Aita, ama eta lkerren partetik zorionak.



URTE ASKOAN

Edurne Beldarrain

(Tolosa). Gaur 8 urte. Zorionak 'bixkitta linda'.

AGURRAK ▶



ZORIONAK

Aloña eta Mikel (Añeta). Ea oraingo bizimoduko mendia hain erraz igotzen duzuen. Animo osaba Abis! Familiaren partetik.



M. Joakina Balda Tolosa. Bi urte badira guregandik urrun zaudela, baina gure orimenean izango zara Larraitxo amak lagunduta. Bihar 12:30ean meza bere arimaren alde Larraitzen.



BEREZITASUNAK:

- Ahate entsalada epela
- Pasta entsalada
- Azpizuna foie freskoarekin
- Azpizuna sagar saltsa eta berdurarekin
- Etxeko postreak

Menua astean zehar
Asteburuetan karta eta plater konbinatuak
Astelehena jai eguna